


## EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

EAEko ekonomia %2,4 hazi zen laugarren hiruhilekoan

### BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko ekonomia %2,4 hazi zen laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago eta Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspena baino bi hamarren gutxiago ere. Beraz, 2018ko hastapenean hasi zen moteltzeak aurrera jarraitu du eta 2019ko lehen erdira luzatuko daiteke. Urteko batez bestekoan, EAEko barne produktu gordina %2,8 handitu zen, aurreko urtean baino hamarren bakar bat gutxiago. Halaber, emaitza hori bat dator Ekonomia Zuzendaritzaren aurreikuspenarekin. Izan ere, pasa den maiatzean aurreratzen zen urte osoko batez besteko hazkundea tamaina horretakoa izango zela eta ondorengo berrikusketetan ere tasa horri atxiki zitzaion.


### BPGaren bilakaera

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



**Enpleguaren bilakaera**


Urte arteko aldakuntza tasa



Hiruhilekoaren hazkundera sektoreka banatzen denean, agerian geratzen da eraikuntzaren une gozoak eta zerbitzuen egonkortasunak ekarri dutela hazkundera, industriak ahultzeko joera nabarmena iradokitzen duen bitartean. Sektore horren apaltzea, neurri batean, isurien araudi berrira egokitzeko automobilgintzako enpresek bizi duten prozesu zailetik eratorri da, EAEko enpresa handi batzuetan eragina duena. Enpleguari dagokionez, lanaldi osoko lanpostuen kopurua %1,9 handitu zen, urte arteko tasan, laugarren hiruhilekoan, eta %2,1, berriz, urteko batez bestekoan. Bi zenbaki horiek hamarren banatan hobetzen dute Ekonomiaren aurreikuspena eta urteko batez bestekoan 19.000 lanpostu inguru sortu zirela egiaztatu du, aurreikuspean zenbatetsi zuenez. Enplegu garbia sortzen jarraitzen den heinean, ziklo hedatzaileak aurrera egiteko probabilitateak areagotzen dira, eszenategian aurreratu den moteltze arineko joeraren barruan.

**Enpleguaren bilakaera**

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.